

ATZO KALERATUTAKO EPAIAK ERE EZ DU FROGATUTZAT EMATEN GAZTE TOLOSARRAK TORTURATU ZITUZTENIK

Galindori eta Elgorriagari 71 urteko zigorra ezarri diete, talde armatuko kidetzat jo gabe

■ Angel Vaquerori 69 urteko zigorra ezarri diote eta Felipe Bayori eta Enrique Doradori 67 urte eta zortzi hilabetekoa

■ Rafael Vera eta Jorge Argote absolbitu egin ditu epaimahaiak, haien kontrako akusazioak frogatu ez direlakoan

■ Barne Ministerioan errefuxiatuen kontrako ekintzak egiteko asmoa zegoela jakinik erabaki zuten Lasa eta Zabala bahitzea, dio epaiak

Eider Goenaga / Madril
Berriemaile berezia

ENTZUTEGI NAZIONALEKO epaimahaiak atzo kaleratu zuen Lasa-Zabala kasuko epaia, eta 71 eta 67 urte arteko espetxe zigorrak ezarri zituen zazpi akusatuetatik bostentzat. Hala, Enrique Rodriguez Galindori eta Julen Elgorriagari 71 urteko espetxe zigorra ezarri diete, Angel Vaquerori 69koa eta Felipe Bayori eta Enrique Doradori 67 urte eta zortzi hilabetekoa. Beste bi akusatuak, Rafael Vera eta Jorge Argote, absolbitzea erabaki du epaimahaiak. Akusatu guztiak izan ziren atzo Entzutegian epaia eman zuten unean, Bayo eta Dorado kenduta, azken horiei espetxean eman baitzieten zigorraren berri. Zigor handienak, beraz, kargu altuenak zituztenei ezarri dizkie epaimahaiak, euren erabaki zutelako legez kanpoko ekintzei ekitea. «Barne Ministerioan, Iparraldean errefuxiatutako ETAko kideen aurka legez kanpoko ekintzei bidea irekitzeko ideia zutela jakinik, Julen Elgorriagak eta Galindok parte hartzea erabaki zuten, atxilotetarako egin, informazioa lortu eta, beharrezkoa balitz, atxilotuak desagertaraziz», dio epaiak.

Dena dela, ez du onartzen talde armatua osatzen zutenik, eta ez du frogatutzat eman. Erabakia Galindok eta Elgorriagak beren kabuz hartu zutela dio, eta ezin dela frogatu talde horren egitura beste ekintzetarako aprobe txatu zutenik. «Ez da frogatu ekintza hauek egiteko erabili zen egitura —Donostiako komandantziako Informazio Zerbitzuko zati batek osatutako egitura— GALi egotzita beste ekintzaren batean erabili zenik», dio epaiak.

Bahiketa eta hilketa delituak dira epaimahaiak frogatutzat eman dituenak, «Ala-

■ ■ ■ «Ez da frogatu egitura GALi egotzitako beste ekintzaren batean erabili zenik», dio epaiak

cantera eramateko erabakia ezingo bailuke bahiketa egin duen beste inork hartu»; baina ez lesioak edota torturak. Izan ere, gorpuetan aurkitutako bendak torturen zantzuak direla esan arren, epai-

mahaiak uste du ez dela froga nahikoa delitu hori leporatzeko. «Gorpuetan zati bigunen faltak ezinezkoa egin du lesioak hil aurretik egin zirela frogatzeko».

Epaia absolbitu egin ditu Vera eta Argote babesa ematearen eta diru publikoak bigarabegabe erabiltzearen delituetatik. Veraren kasuan, lekukotza bakarra Roldanena dela eta honek harenganako gorrotoa agertu izanak balioa kentzen diola dio epaiak; gainera, Bayok jasotako diru berezietatik atera zuela froga-

tzerik ez dagoela dio. Argoteri buruz, delitua estaltzeko hainbat ekintza egin zituela onartzen du, baina 1995. urtea bitartean legeak ez zuela hala aurreikusten eta zigortu ezina dela.

Espetxera

Entzutegi Nazionaleko Penaleko aretoan, orain, bista bat egin behar dute, akusatzaileen eskariz, kondenatutako egoerari buruz erabakitzeko. Fiskalak eta herri akusazioak atzo iragarri zuten, bereha-

la eskatuko dute Galindo, Elgorriaga eta Vaquero espetxeratzea eta Bayo eta Dorado espetxean mantentzea.

Vera, Argote, Galindo, Elgorriaga, Vaquero eta Dorado akusatuek idatzi bat kaleratu zuten atzo «errugabeak» direla adierazteko. Zigorra «mingarria» suertatu zaiela diote, «gure bizitza profesionalen gure interes bakarra oinarriko eskubideak eta ordenamendu konstituzionala defendatzea izan baita, zenbait kasutan geure bizia arriskuan izanik ere».

ZIGORRAK



E. Rodriguez Galindo

71

Hilketa, bi delitu	57
Legez kanpoko atxiloteta, bi delitu	14
Lesioak / torturak egitea	absolbitua
Talde armatuko kide izatea	absolbitua
ESKAERAK	
Fiskala	110
Akusazio partikularra	124



Julen Elgorriaga

71

Hilketa, bi delitu	57
Legez kanpoko atxiloteta, bi delitu	14
Lesioak / torturak egitea	absolbitua
Talde armatuko kide izatea	absolbitua
ESKAERAK	
Fiskala	110
Akusazio partikularra	124



Angel Vaquero

69

Hilketa, bi delitu	56
Legez kanpoko atxiloteta, bi delitu	13
Lesioak / torturak egitea	absolbitua
Talde armatuko kide izatea	absolbitua
ESKAERAK	
Fiskala	108
Akusazio partikularra	124



Enrique Dorado

67

Hilketa, bi delitu	55+8 hilabete
Legez kanpoko atxiloteta, bi delitu	12
Lesioak / torturak egitea	absolbitua
Talde armatuko kide izatea	absolbitua
ESKAERAK	
Fiskala	108
Akusazio partikularra	112



Felipe Bayo

67

Hilketa, bi delitu	55+8 hilabete
Legez kanpoko atxiloteta, bi delitu	12
Lesioak / torturak egitea	absolbitua
Talde armatuko kide izatea	absolbitua
ESKAERAK	
Fiskala	108
Akusazio partikularra	112



Rafael Vera

absolbitua

Hilketa, bi delitu	absolbitua
Legez kanpoko atxiloteta, bi delitu	absolbitua
Diru publikoa erabiltzea	absolbitua
ESKAERAK	
Fiskala	4
Akusazio partikularra	13



Jorge Argote

absolbitua

Hilketa, bi delitu	absolbitua
Legez kanpoko atxiloteta, bi delitu	absolbitua
Diru publikoa erabiltzea	absolbitua
ESKAERAK	
Fiskala	4
Akusazio partikularra	8